# BARREN

1997ko ekainaren 27a
V. urtea - 200. zkia.
ELGOIBARKO

**200. zenbakia**

**IRITZIA**
Ion Arrieta

**ERRE[redacted]RTAIA**
C.D. Elgoibarren igoera 2B mailara

**UDALETXETIK**
Olasoko nitxoen eraikuntza lanak

**GEHIGARRIA**
KiliBARREN

**BE[redacted]ETAN**
Jose Luis Belloso

[redacted]
Udako Kirol Eskola uztailean hasiko da

**KULTURA**
Altzola jaietan

# HAUNDI, sekula baino handiagoa




"Bagenekien jendea etorriko zela, baina hainbeste,... zoragarria izan da" J.R. Zabala


Txiriboga
Egun
luntxa,
7etan
7:00 13:00
16:00 20 .00
Mª Jose


ZEZEN-BIDE
AUTO-ESKOLA
Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak
GIDARIAK
GIDARIAK
%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin
San Frantzisko, 43 — Tel: 74 27 20 — ELGOIBAR
Zezenbide, 1-1 — Tel: 20 34 35 EIBAR



ION ARRIETA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Ai Dolly!

Bera ezer saiatu gabe, Dolly, ardi "klonikoa", famatua bihurtu zaigu. Eta zergatik? Ba, beste ardi baten zelula zati bat hartu eta ardi haren berdin-berdina sortu dutelako: Dolly. Ardi biek ile, begi, belarri, hankak, bihotza,... dendena berdina omen dute. Bai, bikiak eta biritxiak baino askoz berdinagoak. Fotokopiak bezalakoak.

Lehenengo aldiz Dollyren kasua entzun nuenean, poztu egin nintzela esan behar dut. Bide horretatik laster batean bakarrik arraultza asko ipintzen dituen oiloak izango genituen, edo ehizean oso onak diren txakurrak, edo okela mamitsua duten txahalak kortan,... Eta nire imajinazioa askatu nuenean eta hori bera pertsonei aplika zitekeela ohartu nintzenean poz handiagoa hartu nuen. Berriz ere Errealak Liga, Kopa eta Surpekopako txapelduna izateko aukera izango zuela bururatu zitzaidan. Arkonada, Zamora, Larrañaga eta Gorrizen fotokopiak egitea besterik ez da behar, eta hara hor gure Erreala berriz txapeldun, eta Yaw, Craioveanu eta Kovacevik gabe. Ildo beretik, nire lagun batek gaztetan izandako andregaiaren "klonikoa" nahiko lukeela komentatu zidan (berdina izanez gero, honek ere utzi egingo zuela ohartu gabe).

Gero, pixka bat kezkatzen hasi nintzen. Arkonada eta nire lagunaren andregaiaren fotokopia egitea posible bazen, beste lapur, diktadore, zapaltzaile, hiltzaileen,... fotokopiak ere bai. Albiste hau argitaratu zenetik, jakintsu asko zoratuta dabil aurkikuntza honek gizatasunari ekar diezazkiokeen ondorioak aztertzen.

Iritziak, arauak, eta lege berriak egingo dira, ez dakit jokaera hauek debekatzeko edo norberaren orijinaltasuna babesteko (fotokopia bakoitzak hainbeste diru). Baina gauza hauek ez dira matematika bezalakoak, eta bi gehi bi, gehienetan ez dira lau izaten. Bizi dugun farnilia, ikastola, herria, ingurua eta gizarteak eragin handia du. Har ditzagun bi "kloniko". Bata txikitatik Ugandara bidall eta Elantxobera bestea. Hizkuntza, ohitura, elikadura, erropa, maitasun, gaixotasun... zeharo ezberdinak bizi ondoren, pertsona berdinak izanao direla uste?

> "Bi pertsona kloniko egoera erabat ezberdinetan bizi ondoren, pertsona berdinak izango direla uste?"

Dena dela, teknika hau pertsonekin erabiltzea oso arriskutsua izan daiteke, eta ez nago ziur gizartea kontrolatzeko gai izango denik. Gaur egun hain normala den paperezko fotokopiak egitea orain dela hogei urte ia ez zen ezagutzen. Berdina pasatuko al da beste hogei urte barru pertsonen fotokopiekin, hau da, "klonikoekin"?

LABURPENA:GURE PROTACONI5TEK KONPLIZE ETA ADISKIDE LE1ALAK AURK1TU DITUZTELA DIRUDI... ETA PAZIENTZIA HANDIA DUTENAK...



Ba RREN

Nafarroa enparantza. 2
20870 ELGOIBAR
z' 74 41 12
Publizitatea:
²⁷ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA Miren Moreno
MAKETATZAILEA Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegi, Gemma Agirregomezkorla, Itziar Ajuria, lon Ardeta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guilk5, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi Leen, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, lxidor Solupe, Leire Urkidi, lban Urizar
Unal Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETAARDURADUNA IMS1101 Lafrafiaga
INpRimAneut Gertu Koop. E.
TIRADA 4.000 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

ndazioa
11¹¹¹¹⁹ f: ndaciOn u....

DANOBAT
MAQUINAS HERFIAMIENTA

# ESKUTITZAK

## Euskarari diskriminaziorik ez

**Joan** zen igandean, dagoeneko herritar guztiok dakigun bezala, Elgoibarko futbol taldeak gora egin zuen. Hori zela eta jende ugari plazara hurbildu ginen beraiei gure poza eta, aldi berean, zorionak emateko edo behintzat, adierazteko asmoz.

Plazara heldu ziren eta han geundenok, txalo eta laudoriozko oihuz hartu genituen. Haritz Dantza Taldekoek Aurreskua dantzatu zieten eta bukatzeko, denok espero eta nahi genuen bezala, hitz batzuk zuzendu zizkiguten. Hau izan zen harriduraz bete gintuen unea. Futbol taldeko jokalari batzuek, entrenatzaileak eta Futbol Elkarteko lehendakariak zerbait esan zuten. Baina azken honek izan ezik, beste guztiek gazteleraz zuzendu zizkiguten beraien hitzak. Hau gutxi balitz, Gillenno Garate alkateari ere bere txanda heldu zitzaion eta honek ere geurea ez den hizkuntza erabili zuen.

Badakigu Elgoibarren euskararen erabileraren normaltasuna ez dela erabatekoa, baina gutxienez jendaurrean bi hizkuntzetan zuzentzea bidezkoa baino beharrezkoa dela uste dugu, jendeak, ahal den neurri altuenean, euskara gertu senti dezan eta normaltasun hori gure artera ere hel dadin.

Bestalde, alkateari azaldu nahi genioke, noizean behin aldizkarietan irrifartsu euskararen alde dagoela esatearekin nahikoa ez dela eta euskarak bizia behar duela izan. Ezin baitugu ahaztu 1991ko SIADECOren ikerketen arabera euskaldunen kopurua %62koa zen arren, erabilera %31,8ra murrizten zela. Honek nahiko egoera larrian jartzen gaituela uste dugu nahiz eta hauen hitzetan ere euskararenganako joera orokorrean ona izan. Baina igandeko gertakizunek hemen kontraesan bat dagoela adierazi ziguten Elgoibarko futbol taldeko partaide batzuk eta herri euskaldun honetako alkate den G. Garateren aldetik behintzat.

Idazki honen bitartez, behin eta berriro aipatu ditugunoi erreflexio tarte bat eman nahi genieke, Euskal Herrian bizi garelako eta euskarak euskaldun egiten gaituelako: Euskal Herrian Euskaraz.

Maier Gurrutxaga, Maider Etxaniz, Elsa Sanchez, Olatz Arriola, Sonia G mez, Andrea Zubiaurre, Igor Isasmendi eta Asier Zengotita

I3ARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

## GALDERAK

• **San Roke inguruan futbolean jolasten ibiltzen diren gazte batzuk** galdera hau luzatu nahi diote Udalari: "Zergatik **ez duzue iturri bat jartzen San Roken?"**
Hirigintzako buru den **Jose Mari Oruesagastik** zera erantzun du: "Ezer **egin aurretik aztertu egin behar da non jar daitekeen iturria,** hau da, iturbururik dagoen, kanafizaziorik egiterik dagoen, etab. **Udaletxean eskaria jasota dago** eta aurrerantzean gai hau aztertzeari ekingo diogu".

## KEXAK

• Jende askok eta askok deitu digu **Haundiri Plaza Handian egin zitzaion omenaldian euskarak izan zuen tratamendu lotsagarria salatzeko.** C.D. Elgoibarko presidentea den Jose Ramon Zabalak bakarrik egin omen zuen euskaraz, gainontzeko guztiek gaztelera hutsean egin zutelarik, herriko alkatea tartean. Mintxetan jokalariak euren artean euskaraz dexente jardun ondoren, benetan penagarria izan omen zen Plazan ia dena gazteleraz entzutea.

• **C.D. Elgoibarko bazkide baten kexa: "Joan** den igandean harrera beroa egin zitzaion futbol taldeari Plaza Handian. Udaletxeko balkoitik bost pertsonak berba egin zuten, tartean alkateak. Nire harridura eta tristurarako azken honek ez zuen hitz bat ere euskaraz esan, ezta `arratsaldeon' edo `zorionak' moduko berba solterik ere. **Zorionak Elgoibarko futbol taldeari eta txartel gorria alkateari".**

• Ermuaranbideko herritar bat etorri zaigu hau esateko: "Gure kalean bizi diren batzuek **txakurrak kalera ateratzen dituzte kaka egitera.** Lotsagarria da espaloi gainean kaka egitea. Inoiz portalean bertan pixa egin izan dute txakurrek eta garrapatak ere agertu izan dira. Etxeetan pertsonak bizi behar dira eta ez txakumak".

## TXALOA



• Ume batek **Kimetz Elkartea txalotu nahi du** joan den zapatuan Nahaste-Borraste antolatu zuelako.

# BA1, ESAN?





**Maria Jesus Arzuaga**

***Medikua***

Aste honetako telefono deia herritarron osasunarekin lotuta dago. Izan ere, azken egunotan osasun mundutik bi albiste garrantzitsu iritsi zaizkigu. Bata, mediku errezetei buruzkoa eta meningitisaren aurkako txerto kanpainarena bestea. Biei buruz berba egin eta gauzak argitzeko **Maria Jesus Arzuaga** medikuari deitu diogu.

**- Jendea nahastu xamar dabil errezeten aldaketa dela-eta. Zer da, denok ulertzeko bezala, Osakidetzak proposatu duena? -** Laborategien arabera, produktu berdin bat izen ezberdinarekin komertzializatzen da. Osakidetzak nahi duena zera da: produktuaren izen generikoaren errezeta egitea, eta ez izen komertzialarena. Ondoren, etxe ezberdinen artean aukerakera eginez, farmaziakoak produkturik merkeena eskain diezaioke bezeroari. Honek abantailak eta desabantailak izan ditzake. Esaterako, negutegiko letxugak edo ortukoak gauza bera ez diren bezala, botiken artean ere, antzeko zerbait gertatzen dela esan daiteke.

**- Zer da honekin lortu nahi dena? -** Etxe komertzialen artean konpetentzia sortzea dirua aurreratzeko helburuarekin.

**Laster meningitisaren aurkako txerto kanpaina izango dela entzun dugu. Zeini zuzendua dago eta zertarako da? - 18** hilabete eta 20 urte bitarteko pertsona guztiei dago zuzendua. 18 hilabeteko haurren artean txertoak duen efektua oso eztabaidagarria da eta adin nagusietan meningitisaren intzidentzia minimoa da. Txertoaren helburua Meningokoko C eta A delakoen aurrean babestea da.

**- Noiz hasiko da kanpaina eta zer da adin horretakoek egin beharko dutena? -** Udazkenean hastekotan da. Osakidetzak nola antolatuko duen ez dakigu oraindik baina eskura heltzen zaigun informazio guztia ahal bezain pronto emango dugu aditzera.



*URTEURRENA*
*1995ka ekainaren 10ean, 81 eta 53 urte zituztela hil ziren MARIA AROCENA UNZUETA eta ROSA RIAÑO AROCENAren omenez URTEMEZA izango da San Bartolome parrokian larunbatean, hilak 28, arratsaldeko 7etan.*



# Poza eta negarra

## C.D. Elgoibarren 2Brako igoera Aitor Larrea gaztearen heriotzak ilundu du

*Bost urte dira Elgoibarren antzerako egoera bizi izan zela. Orduan Lerungo futhol zelai zaharrak entzun zituen elgoibartan̄on algarak eta "g000l" diarrak. Oraingoan, Mintxetako inguru berdeak egin du bat Elgoibarko futbol taldearen kolore txuri-gorriekin. Marko paregabea horren Mrpen ederraren lekuko izateko. Alabaina, kolore festa izugarria izan zitekeena, grisa bilakatu zen igande gaueko iluntasunean. Aitor Larrea gaztea ere igoera ospatzen ari zen baina auto istripu batek betirako eraman zuen gure artetik. C.D. Elgoibarren igoera ospatzeko grina eta desioak negar-malkotan itoak geratu ziren. Baina bizitzak aurrera darrai eta, profesionalak garenez, gure zeregina igande arratsaldean Elgoibarren bizi izan zena zuoi erakustea da.*



kainak 22, igande, arratsaldeko 5:30ak. Mintxetako sarreran inoiz ikusi ez den jende ilarak ikus zitezkeen. Elgoibarrek 2Brako igoera dauka jokoan. Aurrean Torrelavegako Tropezdn. Baina Elgoibar ez zegoen inon "trabatzeko" prest. Erretratukoak izan dira protagonistak.





Norgehiagoka oso parekatua hasi zen, tentsioa handia zen eta inork ez zion besteari gaina hartzen. Baina 36. minutuan Yerobik sartutako golari esker zorionaren ateak parez pare zabaldu ziren. Gainera, 39. minutuan Galtxak bigarren gola sartu zuen penalti bati esker. Dena nahi bezala irteten ari zen. Eta partidua amaitzear zegoela, Asier Arzamendik gol bikaina eskaini zigun Mintxetan geunden guztioi. Ordezko bankiloan zeudenek ere ahozabalik jarraitu zuten jokaldia. Gola sartu zuenean berriz...





1.500 lagun baino gehiago bildu ziren Mintxetan! Ez zuten horrelakorik espero dzuzendaritzakoek eta sarrerarik gabe geratu ziren. Zaletuen artean denetik: hamabostero futbolera joaten direnak, azken partidua Lerunen ikusi zutenak, haurrak, zaharrak,... Torrelavegatik ere etorri zen jendea. Eta Elgoibarren zerbait garrantzitsua dagoen guztietan gertatzen den bezala, Mauxitxa txaranga ere han izan zen. Aitor Larrea ere tartean zegoen.





Arbitroak partiduaren amaiera adierazi zuenean, zoramena izan zen. Jendea berdegunera irten eta besarkadak izan ziren nagusi. Eta hasieran denak tente eta zuzen bazeuden, gauzak okertzen eta narrasten hasi ziren. Hemendik aurrera poza eta jai giroa izan ziren bazter guztietan. Jokalariren batek Iea motz-motz moztu behar izan zuela ere jakin dugu.





Jokalariek eta entrenatzaileak ondo merezitako dutxa hartu ostean, Mintxetatik Plaza Handira joan ziren denak. Jubenilak ere bertan izan ziren Euskal Ligarako igoera ospatzeko. Eta Elgoibarren gabarrarik ez dagoenez, Udal Brigadako kamioiaren gainean egin zuten ibilbidea. Kamioiaren aurretik Mauxitxa txaranga eta jarraitzailerik finenak zihoazen. P]azara iristean ere ondo antzematen zen zein ziren benetako zaletuak eta zein okasiokoak.



Gaueko 9:00ak ziren eta Plaza Handian ehundaka lagun zeuden zain. Ongi etorria Udal Txistulari taldeak eta Haritz Dantzari Taldeak egin zien. Gero Udaletxeko balkoira igo eta, mikrofonoa eskuan zutela, bertan zegoen jendetzari eskaini zioten garaipena jokalariek, alkateak eta presidenteak. Jendearen ordaina, berriz, txaloak eta TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,... oihuak izan ziren. Eta batzuentzat hementxe amaitu zen jaia, beste batzuentzat hasi baino egin ez zen une berean. Zorionak C.D. Elgoihar osatzen duzuen guztioi!



# Egon al zinen Haundiren azken partiduan?



**LAUDINO GARCIA**
42 urte, elektrizista

Ez, ez nintzen egon. Ez zait futbola gehiegi gustatzen. Parean tokatzen bazait ikusten dut, bestela ez.



**ANA IGARTUA**
50 urte, etxekonadrea

Bai, noski! Lelengo eta azken golak, Plazako anbientia,... dana zoragarrixa izan zan. Hala ere, lehen Lerurtera beti juten nintzan eta oin, berriz, ez.



**ANTONIO HERNANDEZ**
43 urte, forjatzailea

Bai eta gainera partidu guztietara joan naiz. Bazkide naiz eta zuzendaritzakoa izandakoa ere bai. Play-offean oso ondo ikusi dut eta argi zegoen irabaziko zuela.



**ANA MARI GOIKOETHEA**
51 urte, etxekoandrea

Ez, astirik ez naban euki. Txapliguak eta danak entzun nitxun eta Plazan ere eon nitzan arratsaldian. Ez naiz oso futbolzalia baina poza hartu naban,



**JOANA RUIZ**
13 urte, ikaslea

Ez ze konbitia euki naban. Baina banakixan partidua zauala eta futbola ere piska bat gustatzen jata. Irabazi zuala jakin nabanian poztu ein nitzan.



**ALAIN AYALA**
15 urte, ikaslea

Bai, hain argi zauan irabaziko zabala piska bat aspergarrixa ere ein zala. Kalian anbiente haundixa zauan. Ni ere jokalarixa naiz eta partidu batzuetara juten naiz.

HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(a 74 30 40) ELGOIBAR

FADEK
solariuma
Abuztuan ere zabalik
9:30etatik 4:00etara
Astelehenetik larunbatera
Errosario, 23 behea
Tel: 74 26 92

OIERECI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua
1' (943)20 35 15 ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 E1BAR

# Jokalarien ahotan

PARTIDUA. "Lelengo zatixan bankiluan eon nitzan eta oso nerbioso nauan. Belar naturaleko baloiekin jokatu nahi zabela esan zaben kontrarixuek eta normalian guk ez dogu erabiltzen holako baloirik. Arinauak diaz eta kontrolatzeko zailauak. Bigarren zatixan irabazten guazela ikusi nabanian asko trankildu nitzan. 65. minutuan urten nitzan eta gola amaieran sartu naban. Rarua izan zan ze ni defensan egoten naiz eta momentu hartan delanteruan lekuan nauan. Holako partidu batian gola sartzia oso inportantia da".
OMENALDIA. "Aurreko igoerian jubeniletan nauan eta orduan rezibimientuan eon nitzan. Oingua hala ere, desberdina izan da. Kalian ziar ez zan jende asko ikusten baina Plazara ailegatzerakuan, dana bete-beteta zauan. Udaletxian geundenian, hainbeste jende ikustian nora begiratu ere ez nakixan. Oso emozionantia izan zan".
ETORKIZUNA. "Aurtengo denboraldixa Haundixan ein dot eta hurrenguan ere egongo naizela esan diate. Problemarik eukitzekotan ikasketengatik izango da, kanpora juten banaiz. Bigarren mailan mantentzia zaila izango da ze oin ekipo asko hirugarren mailara jaitsi dia. Hala ere, horretarako gaude gu, mantentzen saiatzeko behintzat".


Asier ARZAMEND1

PARTIDUA. "Ni nahiko lasai nauan, gaztiak zaozen piska bat nerbioso baina partidua hasi zanerako nerbixo guztiak desagertu ein zian. Azkeneko bi partiduak errez irabazi genitxun eta irabaziko gendun konfiantzia nakan. Gainerahainbeste jende eta holako anbientia ikustiak gehixo motibatzen zaitxu. Ekipua oso serixo ikusi naban, bloke bat bezela".
OMENALDIA. "Preferentetik 3. mailara eta lelengo aldiz 2. mailara igo ginanian Haundixan nauan. Lelengo igoeria beti da berezixa baina bai ordukua bai oingua, bixak izan diaz politxak. Bizi ein bihar da zer dan ikusteko. Hala ere, gan jendia ez da asko bolkau. Play-offeko lelengo partiduetan ere ez da jende gehixegi agertu baina azken partiduan oso ondo ikusi gendun afiziva. Ez gendun hainbeste jende espero. Hala ere, kontutan izan bihar da Mintxeta oso hotza dala eta elgoibartarrak ez gerala oso beruak".
ETORKIZUNA. "Oindiok dudia dakat jarraitxuko doten ala ez. Seguruen baietz. Ekipuan daozen fitxajiak mantendu eta beste hiru bat jokalari ekartzeko asmua dauala entzun dot. 2. mailan ekipo onak daoz. Iaz hirugarren mailatik igo zian bi ekipo, onak gainera, bajau ein diaz aurten baina guk gogor eingo dogu lan bigarrenian mantentzeko".


Xabier ALONSO

# [1-T[WriF,11 EG1RA



/1⁵ •-or45419

de 42. e-450dow4¹"6

**AZALEA edergintzakoa**

- Masaiak hartu ala ematea nahiago?
- Normalean eman egiten ditut. Asko nekatzen zara baina konpentsazio handiak ematen ditu.
- Posible al da argaltzea masaien bidez? - Horixe baietz. Logikoki, elikadura ere zaindu behar da.
- Nori emango zenioke gustura masaia bat?
- Beharra duen edonori.
- Olioa **ala krema?**
Krema antizelulitikoak erabiltzen ditut.
- Espumaz betetako bainera ala dutxa azkarra?
- Dutxa azkarrak hartzen ditut denbora faltarengatik baina erlaxatzeko bainu epela bezalakorik ez dago.
- Gizartean zerk behar du aurpegi garbiketa bat?
- Droga erabat garhituko balitz, poztuko nintzateke.
- Egidazu aurpegi perfektu bat pertsonaia ezagunen ezaugarriekin.
- Ez naiz gehiegi fijatzen itxuran, gehiago baloratzen dut osotasuna, batez ere, izaera.
- Zer da edertasuna? - Nor bere buruarekin ondo dauden pertsonek igortzen dutena.
- Udarari begira dietarik egiten al duzu?
- Ez dut sekula beharrik izan. Denetik jaten dut baina kantitate txikietan.
- Bisajista ere bazara. Zer da hori?
- Azal mota guztiak ezagutzea.
- Zeren truke salduko zenioke arima deabruari?
- Ezerk ere ez du horrelakorik merezi.
- Ikusi duzun azken pelikula?
- Iaz, aire libreko pelikularen bat semearekin.
- Besteengan baloratzen duzun bertutea?
- Errespetua.
- Betirako zoriontasunean sinesten al duzu?
- Gauza guztiek dute bukaera. Zoriontasuna, daukazunarekin konformatzea da.
- Berriz jaioko bazina?
- Elgoibarren bizi eta naizena izan nahi nuke.
- Ikusi al zenuen igandean Haundiren partidua?
Lagun batek deitu zidan joateko baina ez naiz bat ere futbolzalea, beraz...

## • Herriko dendarien bilera

Pasa den asteartean herriko 25 dendarik bilera egin zuten Lerungo inguruan kokatuko den supermerkatu edo antzeko superfizie handi baten etorreraren aurrean. Txankakua Merkatari Elkartea izan da bilera honen bultzatzailea. Izart ere, elkarteko idazkariak esan bezala, "Txankakua elkartea aspaldi dabil gai hau aztertzen eta gure asnaoa da Txankakua barruan dauden kornertzioak ez ezik, herriko taberna eta gainontzeko zerbitzuak ere, biltzea gai honen aurrean zerbait egiteko. Bileran aipatu zen gai nagusia "dendari eta komertzianteen artean dagoen kezka handia da, horrelako supermerkatu batek kalte ugari sor baitezake herriko komertzioan". Bileraren amaieran hurrengo astearterako, uztailak 1, beste deialdi bat egitekotan geratu ziren, ahalik eta dendari gehien biltzeko asmoarekin. Bilera arratsaldeko 3etan izango da Kultur Etxean.

## • Matrikulado garaia Herri Institutuan

Herri Institutuan matrikulatzeko epea uztailean hasiko da. Malla bakoitzerako data ezberdinak ezarri dira: DBHrako Arreiturre Institutuan, uztailaren letik 8ra eta irailaren letik 5era. BBB/IEE 2rako Arreiturre Institutuan uztailaren letik 8ra eta irailaren 8tik 12ra bitartean eta egun bereetan LOGSE eta erdi mailako zikloetarako Bernardo Ezenarrora zuzendu. Goi mailako zikloetan izena emateko B. Ezenarro Institutuan ekainaren 28tik 30era bitartean eta irailaren 18 eta 19an agertu. Bulego ordutegia 9etatik lera bitartekoa da. Informaziorako telefonoak: 74 02 67 eta 74 44 80.

# San Juan suak urteko gaurik motzenean

Astelehen gauean, hilak 23, San Juan eguna ospatu zen. Ohiturari jarraituz, herri guztietan suak piztu ziren, tradizioak dioen bezala, izpiritu txarrak uxatu eta arima berritzeko asmoz. Elgoibarren, Ikastola inguruan, San Roken, Urasandin bai eta beste auzo batzuetan ere, su txikiak eta ez hain txikiak egin ziren. Urtean zehar pilatutako paper eta kartoi mordo bat hauts bihurtu ziren minutu gutxitan. Haurrek entretenimendu ederra izan zuten su gainetik salto egiten. Jakin dugunez, Gurutze Gorrian ez zen inolako zaurituren berririk jaso; hortaz, gau lasaia izan zen piztutako suak asko izan arren. Altzolaraino hurreratu zenak ibaiaren erdian egindako San Juan su handi bat sugarretan ikusteko aukera izan zuen.





# Internet zerbitzua erabiltzeko aukera eskaintzen du Liburutegiak

Udal Liburutegiak Internet-en nabigatzeko aukera eskaintzen du. Duela aste batzuk ordenagailu bat Internet-ekin konektatzeko litzentzia lortu zuen Liburutegiak. Hortaz, jendeak zerbitzu hau erabiltzeko aukera du aurrez txanda hartuz gero. Erabiltzaile izateko beharrezkoa da NANa aurkeztea eta liburutegiko txartela edukitzea. Erabiltzaileek 16 urtetik gorakoak izan behar dute eta 16 eta 18 urte bitartekoek gurasoen baimena erakutsi beharko dute. Zerbitzua dohainekoa da momentuz baina hemendik aurrera eskaria asko handitzen bada, ordu bakoitzeko 200 pta. kobratzen hasiko dira eta erabiltzaile bakoitzaren txanda ordubetera murriztu.





## Nerri Insitutukoen ikasbidaia Parisera

Herri Institutuko 39 ikasle eta bi irakasle hilaren 14an Pariserantz abiatu ziren ikasturte amaierako ikas-bidaian. Astebeteko egonaldian Eurodisney, Futuroscope eta Paris ikusteko aukera izan dute nahiz eta eguraIdi oso kaxkarra izan duten.



## Nerri Eskolako ikasleak barnetegian

Herri Eskolako 6. mailako 20 ikasle hiru egun pasatzen egon dira Sastarraineko (Zestoa) barnetegian. "Euskaraz bizi ondo pasatuz" lemapean, kobazuloak ikusi, zaldi gainean ibili eta bestelako ekintzak, guztiak euskaraz, egiteko aukera izan dute.

## Estatuko bezkuntza arduradunak IMHn bisitan izan ziren

Estatuko Hezkuntza Ministerioko eta Autonomi Elkarte ezberdinetako Hezkuntza Sailetako arduradunak Erreminta Makinaren Institutuan izan ziren pasa den ostegunean San Roken kokatutako ikastetxeko instalakuntzak ikusten. Bisita hau Donostian egiten ari diren Lanbide Heziketari buruzko Topaketen banuan izan zen. Topaketa hauetan Estatu mailan puntakoa den Euskal Lanbide Heziketa Plana aurkeztu da. IMHra egindako bisitan Inaxio Oliveri Hezkuntza Sailburtuik parte hartu zuen.





## Pilar ikastetxeko txangoa

Hilaren 15ean Pilar ikastetxeko guraso, ikasle eta irakasleak txangoa egin zuten Donemiliagara. Beste batzuen artean, Suso eta Yusoko monastegia ikusi eta inguruko herriak ere bisitatu zituzten. Irteera hain ondo atera zenez, datorren ikasturtean errepikatzeko asmoa dutela esan digute.



## 108 lagun elkartu ziren 50. urteurreneko bazkarian

Joan den larunbatean, 1947an jaiotako 108 elgoibartar elkartu ziren aurten 50 urte bete dituztela ospatzeko. Meza entzun ostean erretratua atera zuten Leku-Ederren. Luntxa izan zuten Baltasar elkartean eta bazkaria Herri-Gain jatetxean. Ederki pasatu zutela jakin dugu, hain ederki, bost urte barru, hau da, 55 urte betetzen dituztenean, berriz elkartzekotan geratu ziren.

# Abuzturako prest egongo dira nitxo berriak

## Lehen fasean egindako nitxoetatik 48 bakarrik geratzen dira salgai

*268 nitxo berri egiten ari dira guztira kanposantuan. Horietatik 220 salduta daude dagoeneko. Nitxo bakoitzak 150.000 pta. balio ditu eta lauko ilara erosten dutenek 600.000 pta. ordaindu beharko dute. Obren lehen fase hau oso aurreratua dago eta abuzturako prest egongo dira seguruena.*



*Lehen fasean 268 nitxo egin dira*

Beste herri batzuetako esperientzia ikusita, Elgoibarren ere nitxo berriak eraikitzea erabaki zen. Nitxo hauek lur azpian daude eta lauko ilara bakoitzaren gainean, lur gainean joango da lapida. Horrek esan nahi du, nitxoek lapida konpartitu egin beharko dutela, "lauko ilara osoa erosi ez duten kasuetan, lapida bakar batean agertu beharko dira izen desberdinak". Hori bai, Belen Elorzaren hitzetan, "lapida guztiek neurri berbera izan behar dute, askoz estetikoagoa da bakoitzak nahi duen tamainakoa jarri eta desorekak sortzeko". Nitxoen gaineko aldea belarrez estaliko da eta hildakoak lur-azpian hilobiratuak baleude bezala ikusko da.

Momentuz 268 nitxo egingo dira baina aurrera begira, eta jendearen eskaeraren arabera, tokia dago beste 1200 nitxo gehiago egiteko. Bitartean, berriez gain, hondatuta zeuden nitxo zahar batzuk eraberritzen ari dira. Nitxo zaharrak 10 urterako alokatzen dira.

Izan ere, Belenek azaldu digunez, "gaur egun Elgoibarko kanposantuaren egoera benetan penagarria da. Nitxoak berez tokatzen dena baino lehenago hustu behar izan ditugu ez zegoelako tokirik. Obra hauekin eta aurrerago egingo direnekin, Elgoibarrek merezi bezalako hilerria izatea lortuko dugu".



wit

I eli RREN

Ekainaren 27a
41, zkia

,...- .71tbeȿe ho-netako argazkia **Manolo Landak** Iaga digu. San Ferminak Izertu direla eta ekarri dugu KiIiBARRENeko orrietara. Izan ere, duela 46 urte Manolo eta bere lagunek hiru egun pasa zituzten Inuleako festetan eta argazkia jaietako une batean atera zuten. Hauek dira erretratuan ikus ditzakegunak, ezkerretik hasita:

**Felix Garate, Eugenio Osoro, Lorenzo Zubiaurre, Manolo Landa, Jose Zabala, Javier Urruzola** eta **Atanasio Olazabal.**



0 1111111 16



/ko,- la/9az ˈlal·fu N

997ka ekainaren 23an hil 7(n
27 urte zituda.

*Zure tronboiaren soinua*

*beti entzungo da Mauxitxan*

Mauxitxa Traranga

# Menciarotarrak ere

*Gorputz perfektuen gizarte honetan, gero eta gizon eta emakume ederragoak azaltzen zaizkigu telebistan. Jendeak kirola, dietak eta operazioak egiten ditu gorputz liluragarri horiek lortu nahian. Mendaron ere bada aukera kirola egiteko eta, agian, baita gorputz zoragarri bat lortzeko ere. Orain arte jendeak kanpora joan behar izaten zuen aerobic edo mantenuko gimnasia egin nahi bazuen baina iaz hasi ziren Mendaron kirol horietako klaseak.*

Duela urtebete Manu Mora Mendaroko Udalarekin harremanetan jarri zen eta Takewondo, judo, gimnasia erritmikoa, mantenuko gimnasia eta aerobic-a gure herrian ematea proposatu zion. Udalean ideia ona iruditu zitzaien eta gaia plenoan eta Ikastolaren Kontseiluan eztabaidatu ondoren onartu egin zen. Takewondo, judo eta gimnasia erritmikoan inork ez zuen izenik eman eta aerobic eta mantenuko gimnasiarekin hasi ziren. Manuren hitzetan, "desilusio txiki bat hartu nuen hiru kirol horietan Inor animatzen ez zela ikusita baina beste biek oso harrera ona izan dute eta nik uste baino jende gehiagok eman du izena".

Urtebete darama Manuk mantenuko gimnasiarekin, "inoiz gimnasiarik egin ez dutenek kirol piska bat egiteko erarik onena da eta, era berean, kirola egitera ohituta daudenek oinarria mantentzen dute". Manuren hitzetan kirol honen bidez gorputz guztia lantzen da baina eurek gehiago lantzen dituzte atal konkretu batzuk, "ipurdia, abdominalak eta bular partea". Klaseak hiru zatitan banatzen dira: beroketa, ariketak eta erlajazioa. Klase guztiak desberdinak badira ere, hau da, batzuk gogorragoak besteak baino, Manuren esanetan, "beti izerditu behar da".

Astean bi aldiz izaten dira klaseak eta momentuz bi talde daude, "40-45 urtekoa bata eta 35-40 arteko bestea. Adin guztietarako kirola bada ere, adinean homogeneotasun bat mantentzen bada Iana hobeto egiten da. Balorazioa positiboa izan da eta jendeak nahi duen bitartean, gu jarraitzeko prest gaude".



Mantenuko gint nasia gorputz osorako ona bada era, batez era ipurdia, abdominalak eta bular partea lantzen dira.

# Iura zaintzen

## Aerobie-a

Inma Diez duela 2 urte hasi zen aerobic klaseak ematen eta urtebete darama Mendaron. Inmaren ustez aerobic-a kirolik konpletoenetarikoa da, "kirola eginez ondo pasatzeko era bat da eta gorputzeko giharre gelnenak lantzen dira. Koreografia eta musikarekin erritmoa eramaten da aerobic-ean".

Kirola eginez mehetu nahi duen jende asko dago. Inmarekin aritu gara gai honen inguruan berbetan eta esan digunez, "aerobic-aren bidez giharreak lantzen dira baina berez ez da mehetzen nahiz eta dietaren bat eginez lor daitekeen pisua galtzea. Halere, gorputza moldeatu eta zintzilik geratzen den haragia bere tokira eramateko balio dezake. Flexibilitatea, indarra, erresistentzia eta bestelakoak lortzen dira".

Dirudienez, gainera, aerobic-a egiteko era asko dago, "mota asko dago" playaerobic, acuaerobic, afroaerobic... Baina Mendaron ematen duguna aerobic hutsa da".

## Bakalao musika

Aerobic-a musika eta koreografia desberdinak landuz egiten da. Inmak esan digunez, klaseak emateko musikarik aproposena "bakalaoa" da, "baina ez da derrigorra, beste doinu eta musika mota batzuk ere erabil daitezke". Aerobic-a ere astean bi aldiz ematen da eta bi talde daude, "batean 6 pertsona daude eta bestean 25. Hasieran jende asko animatzen da dantza egin eta ondo pasatzeko dela pentsatuz baina horrez gain, nekatu eta izerditu ere egin behar da".

Aipatu beharra dago ez mantenuko gimnasian, ez aerobic-ean ez dagoeIa gizonezkorik, halere, esperientzia ona da eta jendeak ondo erantzun du.



NIusika eta koreogratiaren bidez giharreak lantzen dira.

## Zer moduz aerobic eta mantenuko gimnasian?



OLAIA REVERTE
17 urte

"Oso ondo iruditzen zait herrian bertan ematea beste inora joan beharrik-izan gabe. Ni aerobic-ean oso gustura nago, lagunen artean komentatu eta izena eman genuen. Denbora baldin badaukat, jarraitzekoa asmoa dut".



## Mantenuko gimnasia

RAMONI ITURRIA
45 urte

"Ondo iruditzen zait. Gainera, ni sekula ez naiz horrelako gauzetan ibili eta kirola eitxeko gogua nakalako hasi nitzan. Gogorrena korrika eitxia da eta errezena estiramentuak. Jarraitzia pentsatzen det".

## KiliBARRENerako kolaboratzaileak

Kazetaritza mundua gustatzen bazaizu eta Mendaroko kontuak jaso, argazkiak atera eta horien berri emateko prest bazaude, jakin ezazu Ki1iBARREN gehigarrirako kolaboratzaileak behar direla. Interesatuek Mendaroko Udaletxera jo dezakete informazio gehiago jasotzeko. Animo!

## Aire libreko zinea

Udalak antolatuta, gaur eta datozen bi ostiraletan aire libreko zine emanaldiak izango dira gaueko 10etan hasita. Gaur, ekainak 27, Garagartzako plazan "Street fighter" pelikula izango da ikusgai. Uztailaren 4an, Zelaikua plazan "Jumanji" eskainiko da eta uztailaren 11n, Mendarozabaleko plazan "Leyendas de pasin". Euria egiten badu, emanaldiak frontoian izango dira.

## Euskara ikasteko dirulaguntzak

1996-97 ikasturtean euskara ikasten egon diren mendarotar helduek dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute baldintza hauek bete ezkero:

• Gutxieneko asistentzia: %90
• Ikastaroa amaitzea
• Matrikulatutako ikastaroko azterketa guztiak eginak izatea.

Ikasleari kurtso amaieran matrikularen erdia eta klasera joan den egun bakoitzeko 85 pta.ko dieta emango zaizkio. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 1 ln amaituko da.

# Makailo lehiaketa

Uztailaren 25ean, Santixo eguna, Mkailo lehiaketa izango da Gotiati pilotalekuan. Eguerdiko 12etan hasiko da eta makailoa pil-pil erara prestatu beharko dute partehartzaileek. Mendaroko elkarte eta kuadrilek har dezakete parte eta taldeek bi lagunez osatuta egon behar dute. Izena Aizpe, Kilimon, Bustin Alde, Txirristaka, Ormola eta Udaletxean eman behar da uztailaren 15a baino lehen. Irabazleak trofeoa eta 10.000 pta. jasoko ditu eta bigarren sailkatzen denak trofeoa eta 5.000 pta. Sari banaketa eguerdiko lean egingo da.



# afari herrikoia

Iaz izan zuen harrera aparta kontuan hartuta, aurten ere afari herrikoa antolatu da jaietarako. Santana egunean, gaueko 9:30etan hasita izango da frontoian eta izena emateko epea uztailaren 16ra arte luzatuko da. 250 txartel aterako dira guztira. Izena Txirristaka Pub, Ormola, Aizpe elkartea, Kilimon elkartea, Bustin-Alde elkartea, Jubilatuen elkartean eta Udaletxean eman daiteke.

Afaltzeko mannitakoa, erredondoa saltsan, San Markos tarta, edariak, kafe konpletoa eta txanpaina egongo dira eta prezioa 1.500 pta.koa **da.**



*KiliElciRREN*
Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

*65 urte beteko ditu gutxi barru. Jose Luis Belloso mendarotarra oso ezaguna da Elgoibarren. Izan ere, ez ditu alferrik urteak eman Madalako elizan apaiz eta Herri Institutuan erlijio irakasle. Baina, adina iritsi zaio eta aurten izan du bere azken ikasturtea. Jose Luis Belloso jubilatu egingo da, irakaskuntza utzi egingo du. Gaur bertan, ostirala, lagunarteko bazkaria izan du Institutuko kideekin. Berak esan digunez, "gauza garrantzitsu asko enzan dizkit irakaskuntzak baina, batez ere, adiskide onak egin ditut".*

J. LUIS BELLOSO

# "Jubilailoa gizakion lorpen handia da"

**—Derrigorrezko jubilazioa izan al da, Jose Luis?**

- Gizakion lorpen handia izan da 65 urterekin jubilatzea eta nire eskubidea ere bada. Gainera, nik uste komenigarria ere badela, erreleboa pasatu behar zaie gazteei. Gainera, urteak ez dira alferrik pasatzen eta estresatuta bizi izan naiz, institutura joan, ordu bat eman, libre nuenean Madalara jaitsi, elizkizuna prestatu... Denbora librerik gabe.

**- Nola hasi zinen irakaskuntzan?**

- Rol hori bete beharra izan **dut,** ez da izan guztiz nere horondatea. Garai batean jendeak bultza egiten zizun rol hori betetzera. Halere, nik izan nuen arrazoi bat. Aldaretik ez nuen bizi izaterik nahi eta Iau apaiz lagun lan bila hasi ginan. Baina, garai hartan enpresa batean apaiz bati lana ematea ez zegoen ongi ikusita, beldurra edo zuen jendeak eta ez genuen ezertxo lortu. Irakaskuntzarena atera zitzaidan eta baietza eman nuen. Gaur arte.

**— Zergatik ez zenuen nahi aldaretik bizitzea?**

- Alde batetik Jainkoaren hitzaren profesionala egiten zaituelako eta nik hori ez nuen nahi. Nik beti bizi izan dut Askapen Teologiaren klabea eta ildo horretatik markatu ditut nire bizitza-filosofiaren oinarriak.

**Zeren aldeko apostua egin zenuen?**

- Hasiera-hasieratik gileen, gazteen eta Euskal Herriaren aldekoa. Horiek defendatzeak arazoak eragin dizkit eta behin baino gehiagotan ikusi izan dut aldaretik jendea altxatu eta elizatik ateratzen.

EESTEEK ESANA

**"Bizi-bizia da eta bere idealei beti tinko eutsi diena. Lagun ona"**

ANDRES ALBERDI, lankidea



**—Elkarriko partaide ere bazara.**

Bai, Euskal Herriak konponbidea behar du, elkarrizketaren bidez etorriko dena. Apaizen Koordinadorako partaide naiz. Koordinadora honek elizarekiko distantzia bat mantentzen du, kritikoak gara. Gure ustez eliza, beste gauza batzuen artean, hern honetako pakegintzan ere gehiago inplikatu heharko litzateke. Beti ere, bakea duintasunarekin bestela ez haita, prakak jaistea baizik. Armak utzi eta elkanizketaren bidez akordio batera iritsi behar gara.

**—Apaiz izatetik ere jubilatuko al zara?**

- Oraindik ez, dut erabaki. Gotzaiarekin hitzegin behar dut. nrintzipioz 65 urterekin jubilatzea eskubidea izan arren, Gotzaiarekin hitzegin eta baldintza batzuk betetzen badira jarraituko dut.

**Esate baterako?**

- Azpiegitura izatea. Madalan lokalik gabe gaude eta horrela ezin da jarraitu. Madala inguruan zerbait behar da. Duela 12 urte Udalak Pedro Muguruzako ALBA fundizio zaharretako lokalak agindu zizkion gotzaitegiari eta orain, lokal horiek saldu eta etxebizitzak eraikitzeko proiektua omen dago. Guri Udalak ez digu ezer esan.

**- Zein oroitzapen daramazu irakaskuntzatik?**

- Batez ere oso adiskide onak, leialak, bene-benetazkoak. Errespetu handia dago, eta hori asko baloratzen dut. Are gehiago, apaiz artean baino adiskide hoheak ditut apaiz ez direnen artean.




Intsumitu izena ikasi berriak gara. Hala ere, izena da bat eta izana beste bat. Soldadutzara ez joatearren, soldadutza bera baino latzago edo luzeagoko espetxea pasatuz, legea aldatuko bada, norbaitek ordaindu behar. Intsumitu arazoa bidertzen edo multiplikatzen ari da eta honela jarraituz gero, lege hori aldatu edo gozoagotuko dutela esan daiteke. Baina bien bitartean, norbateik sufritu egin behar.

Betidanik ahalegindu izan gara soldadutzari uko egiten, nolabaiteko erdi-egia edo aitzakiekin. Behin soldadutzara joan beharrez gero, soldadutza arruntari ihes egin edo arindu nahian, eskalada, eski eta kiroletan eta abar parte hanuz.

Gure gaurko pertsonaia soldadu joan aurretik kriolzalea bazen ere, hantxe landu zuen kirolari bezala. Soldadutza bukatzean, kirola erdi utzirik bazuen ere, laister hasi zen jo eta ke entrenamenduetan kirol jokoan. Ez nolanahi ere. Hamabi-hamalau marka ondu ditu. Beste sei-zazpi omenaldi ere jaso ditu. Baina penak ere baditu. Danimarkan Munduko Kirol Txapelketan eta 200 metrotan aurrena atera zuen. Etxera etorri eta ez Espainiako Federazioak, ez Euskadikoak, ez Gipuzkoakoak eta ez inork txintik esan ez. Penak gogoan. Berak dio: azkena atera izan banu, beharbada aipatu edo zerbait entzun behar izango nuen.

Baina, nor da Elgoibarren jaio, hazi eta bizi den pertsonaia hau?

**Testua: Fellx Etxeberria**

**Erantzuna bidali BARRENera.**

# Jose Gurrutxaga San Martin

## (19011982)



- 1906ko abenduaren I 7an jaio zen Elgoibarren. Hiru anaia eta neska hakana ziren, bera zaharrena.
- eGaztetan herriko eskola publikoan eta gauez, "Artes y Oficios" eskolan ikasketak egin zituen. Geroago Eibarrera joan zen eskopeta-lanetara.
- Txinindularitzarako zaletasun handia zuen. 18 urterekin Elgoibarko Txapelketa irabazi zuen.
- Orduan "Cafe" La Amistad" gainean C.D. Elgoibarko lokala zegoen. Herrikoek irabazitako kopak eta Juanito Mugerza, Jose Gurrutxaga etab.en erretratuak zueden. Hura bai giro ederra orduan.
- Geroago Donostiako txirrindulari froga batean bigarren geratu zen. Lasarteko lasterketan 25 pta.ko saria irabazi zuen urretan. Villafrancan bigarrena izan zen eta Bilbon, Gasteizen, Salamanean etab.en ere aritu zen. Monteroren sasoian 13 kiloko Peugeot bizikletarekin korritzen zuen.
- C.D. Elgoibarko direktiboa eta diruzaina izan zen.
- Pakita Praderarekin ezkondu zen eta seme hat izan zuten.
- **1939an Gurnttxaga Hnos, lantegia ireki zuen, fresadorak egiten** fama handikoak zirenak.
- Gernikako bonbardaketan osorik inen zen.
- Jose, egun eder asko pasatakoa zen anaiartean, familian eta kuadrilan bere harre irekiarekin eta umorearekin.
- Azken 15 urteak La Bastidan igaro zituen familiarekin. Hil baino lehen, bere txokora etorri zen hiltzera bere borondatez. 1982ko azaroaren 27an hil zen 76 urterekin.

**Juanito Gorostiza**

*Nor ole ofa?*

Joan den asteko "Nor ote da?" lehiaketaren erantzuna **Eduardo Iraegi** da. Asmatu dutenak Antton Alberdi, Ana Maria Mugerza Oria eta Idoia Uriarte Mugerza dira.






IfiElINEDZI
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX



karreizano
San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49

Arrieta
San Barunrante, 18
Tel. 74 08 49
braggig1111



Aubixako udalekuetara joan zen lehen taldea da argazkikoa. Aubixa zaharra agertzen da, berritu aurretik. 1973. urteko uztaila zen. Erretratua **Lucia Arrietak** laga digu.

Atzeko ilaran, ezkerretik hasita: **Felipe Castrillejo, Jon Iriondo, Eduardo Armendia, Xabier Osoro, Fatima Beristain, Jone Ajuria, Jone Etxabe, Mari Juli Konde, Josu Mujika** eta **Sebas Larratiaga.**

Bigarren ilaran: **Sara Pagola, M.Jose Jaio, Amaia Larraitaga, Agurtzane Garcia, Myriam Iriondo, Rosa Arriola, Marta Iraegi, Amaia Zabala** eta **Asier Ugarteburu.**

Beheko ilaran: **Iñigo Legorburu, Xabier Bastida, Pedro Arriola, Xabier Zabaleta, Sabin Uriguen, Jose Mari Bastida, Jesus Etxabe, Aitor Mujika, Cesar Arriola, Fernartdo Pe'rez eta Jose Ignacio Elorza (1').**



*1997ho ekainaren 23an hil zen 27 urte zituela.*

*Lagunartean estimatua*

*izan zaitugu, Aitor*

*gure artean betiko biziko zara*

*alai eta jator*

*Zure kuadrilakoak*

# Martin Dominguez nagusitu zen Nahaste-Borrasten

## Urtero bezala, Dakintarentzat izan zen azken sailkatuaren saria

### SAILKAPENAK

**Nagusiak:**

Martin Dominguez 21'36"
2- Ander Zabala 22'08"
3- Eneko Ramos 22'28"

**Beteranoak A:**

Z- Ignacio Krez 23'42"
Beteranoak B:
Antonio Fern "andez 31'02"

**Infantilak:**

Z- Gurutz Quintano 11'00"
2- Aitor Rosario 11'18"

**Alebinak:**

Z- Jon Vicente Lopezosa 13'03"
2- Mikel Gorriti 13'08"

**Alebin neskak:**

Karen Baztarrika 16'57"
Maite Madariaga 17'30"

Joan den larunbat eguerdian Nahaste-Borraste lasterketa herrikoiaren 13. edizioa burutu zen. Lehendabizi 14 urtetik gorakoen lasterketak izan ziren. Alebin eta infantilen kategorietan 11 neska-mutilek hartu zuten parte. Nagusien txandan, berriz, ez zen emakumezkorik aurkeztu eta denera, 27 parhartzaile izan ziren. Martin Dominguez, Sigman bizi den gazteak Nahaste-Borraste lasterketan espezialista dela erakutsi zuen. Bizikletan ari zela gurpila zulatu egin zitzaion eta Plaza Handira zakuari kolpe egiteko iritsi zenean, hirugarren zihoan. Hala ere, zakuarekin aurrea hartu zien aurretik zeuden bi lasterkariei eta azkenean, ia minutu erdiko aldea atera zion bigarren partehartzaileari. Ikuslego aldetik, Plaza handia bete egin zen bai haurren frogan, bai nagusien lasterketan.



*Nahaste-Borraste lasterketan saria jaso zuten guztiak.*

### Abel Hernandez izan da I. Tenis Txapelketako irabazlea

Abel Hernandez, 16 urteko gazteak eta Nicolas Berbell beteranoak jokatu zuten joan den igandean I. Tenis Txapelketako finala. Bi set nahikoa izan ziren Hernandezek Berbell-1 aurrea hartzeko. 6 eta 3 amaitu ziren bi set-ak, biak Hernandez gaztearen alde. Aipatzekoa da Abel Hernandez izan dela partehartzaile guztien artetik gazteena. Hirugarren postuan Gorka Merino sai1katu zen eta guztira 12 lagun aritu dira txapelketan, hauetatik 4 eibartarrak.



*N. Berbell, A. Hernandez eta G. Merino.*

## Istiluekin amaitu zen Futbito txapelketa

Jom den larunbat arratsaldean zen jokatzekoa Urasandiko Futbito Txapelketako Ligako azken partidua. Finala Karkis eta Orbela taldeek jokatu behar zuten duela hiru larunbat, baina arrazoi ezberdinengatik hiru aldiz atzeratu zen partidua. Azken data igande goiz bat izan zen. Plazentziako Orbela taldekoek igande goizean ez zutela jokatuko argudiatuz, ez ziren finalera aurkeztu. Antolatzaileek Orbela taldea deskalifikatzea eta hirugarren eta laugarren s ai l katuen artean, Sanpedrotarrak eta Berrogei Duro taldeen artean, partidua jokatu eta irabazleak finala joka-tzeko aukera izatea erabaki zuten. Horrela bada, Sanpedrotarrek 3 eta I irabazi zuten eta joan den zapatu anatsaldean Karkis-en aurka finala joka-tzeko asmotan Kiroldegira joan ziren. Karkis eta Sanpedrotarrak ez ezik, Orbela taldekoak ere Kiroldegian agertu ziren finala jokatzeko asmoarekin. Antolatzaile eta taldeko jokalarien artean tira-bira handiak izan ziren eta azkenean, Orbela deskalifikatuta zegoenez, Karkis taldeari irabazlearen trofeoa eman zitzaion, finaleko partidua jokatu gabe. Txapeldunordearen saria Sanpedrotarrak taldearentzat izan zen eta hirugarren sailkatuarena Berrogei Duro taldearentzat.



*Karkis taldea artxiboko argazkian.*

# Udsh Kirol Eskola antolatu dute Deba hailarako Udalek

*Uztailaren 14tik 18ra bitartean entrenatzaile, irakasle eta kirolariek euren prestakuntza hobetzeko aukera izango dute Udako Kirol Eskolari esker. Deba bailarako Udalek "Kirola Euskaraz" programaren baitan antolatu dute Udako Eskola hau. Astebetez Euskal Herriko kirolariei euskararen eta kirolaren inguruan bizi izateko aukera emango zaie.*

E:skolak bi atal nagusi izango ditu. Ba- I ' tetik, teknifikazio ikastaroak daude irakasle, entrenatzaile eta monitoreei zuzenduak: atletismoa, eskubaloia, futbola, pilota eta erreziklaia. Bestetik, kirolarientzako ikastaroak antolatu dira kirolariek euren rnatla tekniko, taktiko eta fisikoa hobetzeko prestatuak.

Eskolak antolatutako ikastaroak Eibar, Arrasate, Mutriku, Bergara eta Elgoibarren egingo dira eta ekintza osagarriak Deba, Oñati eta Aretxabaletan. EIgoibarren atletismo ikastaroa izango da; Eibatren futbola; Bergaran eskubaloia, Aramaion pilota eta Mutrikun irakasle eta moni toreen erreziklaia.

MatrikuIa hilaren 30a baino lehen eginez gero bailarakoentzat prezio bereziak egingo dira: 7.500 pta. (kirolarientzako ikastaroak) eta 10.000 pta. (teknifikazioa). Kirol elkarteetakoek bi matrikula doan egiteko aukera izango dute. Uztailaren 1 etik aurrera 2.000 pta. garestiagoa izango da matrikula. Kirolariek lotarako lekua izango dute Eibarko Unibertsitatean. Pentsio osoaren zenbatekoa 7.000 pta.koa da. Izena emateko Eibarko Ipurua Kiroldegira, Elgoibarko Kiroldegira (74 44 15) edo Kultur Etxeko Euskara Zerbitzura (74 43 66) jo daiteke.




*Uztailaren 14an hasiko da Kirol Eskola.*

## KIROL ALBISTEAK

### • Mendiko autobabes ikastaroa

Datorren hilaren 3an eta 4an, mendian ibiltzen direnei zuzenduriko autobabes ikastaroa izango da Kultur Etxean arratsaideko betatik 9etara bitartean. Eusko Jaurlaritzako Larrialdietarako Sailak eta Udal Kirol Patronatuak antolatuta, ikastaroa doan izango da. Ikastaroa eman ahal izateko, gutxienez 20 laguneko taldea osatu beharko da. Mendizale zein interesa duen guztiak Morkaiko Mendizale Elkartean (74 02 92) edo Kiroldegian (74 44 15) eman dezake izena.

### • Lagunak Pilota Txapelketako finalak

Larunbatean, hilak 28, Lagunak Pilota Eskolak antolatutako Pilota Txapelketaren azken partiduak jokatuko dira. Goizeko Iletan Plaza Handian buruz buruko partiduak jokatuko dira lehendabizi, benjamin, alebin eta infantilen kategorietan. Segidan binakako norgehiagokak hasiko dira. Lizartzako Nagore eta Altuna alebinek Bergara eta Murua elgoibartarren aurka jokatuko dute. Euria eginez gero, finalak Ikastolako frontoian jokatuko dira.

## LBEIAETZ IC

**Futbol 7 Txapelketa**

Potxokoak 9 - Mult. Uzuri 2
La Orden Frantz. 1 - Waka 7
Debanda 0 - Lojantxiris 6
Akatu 7- Tsunami's Team 0
Arkupe 5- Sex Simbols 0
Zokoa 1- Vultur Gryphus 2
Txiribindu 2- Petta Alartz 6
Wino 3- Xare taberna 5

**I. Tenis Txapelketa**

Abel Hernandez 6/6 - Nicolas Berbell 3/3

**Lagunak Pilota txapelketa**

Banakakeen linalerdiak:
Astarloa 18 - Loiola 9 (Ben.)
Larrea 18 - Arrizabalaga 11 (8en.)
Azpiazu 18 - Gasteain 6 (Aleb.)
Iriondo 18 - Gorriti 5 (Aleb.)
Binakakoen finalerdiak:
Lizartza 18 - Azgeitia 11
Elgolbar A 18 - Elgoibar B 17

## AG ' ‾ IYA

**Futbol 7 Txapelketa, Mintxetan**

Larunbala, 28
9:00 Aupatu - Spartak Pitxote
Askasibar - I. de Varemedum
10:00 Maser - Udaberri
La Orden Fran tzis. - Debanda
11:00 Beti Sutan - Europurki
Waka - Potxokoak
12:00 B. La Amistad - Excalibur
Lojantxiris - Multi. Uzuri
13:00 Ford Lerun - P.G.B.
Akatu - Zokoa C.
Igandea, 29
9:00 Arkupe - Tsunami's Team
kothingam Prisa - Lagun Toki
1100 Sex Symbols - Vultur Gryphus
Itxistan - Berrogei Duro
11:00 Txiribindu - Xare
Karkis - Ere Bai
12:90 Paotxa - Peña Alaitz
P.S.K. - La Inkisizion
13:00 Malas Hierbas - Wino
Ikus Optika - Tomas y diez rds
Astearlea, 1
18:00 La Colina - F. Astigarraga
Excalibur - Europurki
19:00 Maser - S. Pitxote
Aubixa -1. de Varemedun
20:00 Pedrusko - Udaberri
Anorthosis - B. La Amistad
21:00 Aide Globun - Aupatu
Ford Lerun - Askasibar
Osteguna, 3
18:00 La Orden Frantz. - Potxokoak
Zokoa C. Nautic - Sex Symbols
19:00 Multi. Uzuri - Debanda
Tsunami's Team - Vultur Gryphus
20:00 Lojantxiris - Waka
Txiribindu - Paotxa
21:00 Akatu - Arkupe
Malas Hierbas - Xare

**Lagunak Pilota Txapelketa,** Plaza Handian

Larunbata, 28
Banakako finalak
11:00 Asier Astarloa -Asier Larrea (Ben.)
Iker Azpiazu -Haritz Iriondo (Aleb.)
Asier Uhera - Aitor Idoeta (Inl.)
Binakako tinala:
Lizartza - Elgoibar (Aleb.)

**Sigmako Pilota Txapelketa**

Asteartea, 1
20:00 Garate/Gernka - Loiola/Lazarobeitia
Perea/Arrillaga - Karral/Katey

# San Juan jaiak Aitzolan

*Altzolako jaiak amaitu dira. San Pedro bailarakoen txanda izango da asteburuan. Altzolatarrek eguraldi ona lagun izan dute. Argazki kamara hartu eta Altzolara hurreratu ginen, zer moduzko jaiak diren argazkitan jasotzeko. Hona hemen jaietako hiruzpalau une ezberdin:*

Astearte arratsaldean pilota partiduak jokatu ziren. Goizean goiz etxeetako atariak erramuz apainduta agertu ziren aspaldiko tradizioari eutsiz.

Aurreko egunean, San Juan bezperan, San Juan zuhaitza birlandatu zuten plazan. Gauean San Juan suak sekula baino ikusgarriagoak izan ziren. Ibaiaren erdian jarri zuten sutontorraren goi partean eta alboetako suziriek irudi politak sortu zituzten.





San Juan eguneko argazkiak dira bi hauek. Eguerdian 35 bat auzotarrek lagunartean bazkaldu zuten. Arratsaldean auzoko txikienek ponie eta zezentxoekin tarte ederra pasatzeko aukera izan zuten. Eta jaiei amaiera emateko, sekulako txokolate jana izan zuten. On egin eta hurrengo urtean gehiago.



## 2

## Coltrane, azken trena

Musikaren historian zehar ospetsu egin den jende asko topa dezakegu baina musikari bide berriak ireki dizkiotenak, behatzekin bakarrik konta daitezke. Rock & Rolla Elvis-i edo Soul-a Ottis Redding-i zor zaien bezala, Jazz-a eta musika mota guztiak orokorrean John Coltrane-ekin dute neurrigabeko zorra.

Saxofoi tenorea jotzen zuen musikari honek, Charlie "Bird" Parker-engandik jaso zuen eragin nabannenena eta Mile Davis, Dizzy Gillespie, Thelonius Monk edo Duke Ellingtou bezalako musikarielzin jo zuen. Coltranek biiitza osoa soinu berriak topatzen jardun zuen tegunero 3 ordu egoten zen nota mantenduekin). gaur egungo musika munduan eraght nabannena sortu arte.



Edozein diska har dezaLegu Coltrane-en munduan inurgiltzeko: belarriak irekitzea besterik ez da heitar. Erreferentzia bezala: "Crescent" dinpulse. 19 "vCarBirlaadd" mpu se, 1963), "The last Trane" (Prestige, 1958),...

Egia esanda, diska bat entzuteko nahiago ditugu belarriak edukitzea, baina itsua izanez gero, zein aukeratu?... Denak.

Iban Urizar eta Julen II

# Eulali Moreno

**18 URTE**

**1 -Merezi al du bizitzeak? Eta Elgoibarren bizitzeak?**

- Neretzat bai, ni behintzat ilusivakin nao, gauza berrixak ezagutzeko goguakin. Baina Elgoibar ez jata gustatzen, Gasteizen edo nahiko naban bizitzia.

**2 -Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batengan?**

Ikusiko banaban ez dauala posibilidaderik sendatzeko eta sufritzen dauala, bai.

**3 -Hil eta gero?**

- Zeozer dauala sinistu nahi dot, jaio, bizi eta hiltzia besterik gabe ez dot uste izango danik. Baina ez dakit zer dauan.

**4 -Lehenengo ui eta gero besteak.**

Bestieri laguntzeko lelengo zu egon bihar zera ondo.

**5 -Nori kontatzen dizkiozu arazoak?**

- Laguneri eta mutilari.

**6 -Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?**

- Anbizioa etxia, eukitzia, biajatzia, mundua ezagutzia... Eta biziva, juergak eitxia.

**7 -Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik?**

Ez dot sinisten eta egixa esan ez dot gehixegi ulertzen. Oin arte ez dot edaderik euki botatzeko baina pentsatzen dot egunen batian botauko dotela.

**8 -Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera?**

- Gaztetxian aldeko batera.

**9 -Euskalduna naiz eta harro nago?**

Euskalduna naiz baina horregatik ez dot uste bestiak baino hobiak edo txañauak gerala.

**10 -Zerk galerazten dizu loa?**

Arazuak, remordimientuak, zeozer geizki etxiak...

**11 -Gaztetxea behar al da Elgoibarren? Nolakoa?**

- Bai. Gazte guztiak elkartu eta antzerkixak, kontzertuak eta holakuak antolatzeko bihar da zeozer.



**12 -Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?**

- Pozak eta sufrimenduak ematen ditxuzu eta igual edade honetan sufrimenduak gehixo dia.

**13 -Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?**

- Gehien ni apoiatzia eta gitxien zer ein bihar doten esatia.

**14 -Laguntzen al duzu etxeko lanetan?**

- Bai. Oin ikasi dot kozinatzen eta gustatzen jata eta beste gauzak beti ein izan ditxut, ohiak, garbitxu...

**15 -Alkoholik gabeko jairik?**

- Posible da baina alkoholakin hobeto, ez?

**16 -Trakurri duzun azken liburua?**

- "La Escuela de Summer Hill," sikologiari buruzkua.

**17 -Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?**

Sexua maitasunakin.

**18 -Birjinitatea traba ala bertutea?**

- Bakoitzak bere momentua daka. Plazerra danok bilatzen dou baina horregatik ez daka zertan traba izan biharrik.

**19 -Homosexuat batek maite zaituela esango balizu?**

Ez dakat prejuizioirik, errespetau eingo naban.

**20 -Sinesten al duzu betirako maitasunean?**

- Bai.

# INTERESEKO

111111110[11111

| OSASUNA | |
|---|---|
| Anbulategia: | |
| Larrialdiak | 461111 |
| Txanda hartzeko | 743354 |
| Planning-a | 742950 |
| Alkoholiko Anonimoak | 740385 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 464622 |
| Gurutze Gorria | 743864 |
| Mendaroko Ospnalea | 756264 |
| Odol Emaileak | 743936 |

| GARRAIOAK | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 740442 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 740898 |

| UDALA | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 744366 |
| Udal Kirol Patronatua | 744415 |
| Kultura Zerbitzua | 742158 |
| Mendaroko Udala | 756100 |
| Ongizate zerbitzua | 741008 |
| Udaletxea | 741050 |
| Udaltzaingoa | 741394 |

| BESTELAKOAK | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 741626 |
| Kiroldegia | 744415 |
| Kontsumo Bulegoa | 743088 |
| Liburutegia | 743525 |
| Musika Eskola | 742145 |
| Mintxeta | 744315 |
| Parrokia | 740842 |
| Postetxea | 741547 |

| HIRUGARREN ADINA | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 740296 |
| Zaharren Biltokia | 740526 |

| IKASTETXEAK | |
|---|---|
| Haur Eskola | 74 21 41 |
| Herri Eskola | 74 08 79 |
| I.M H. | 74 41 32 |
| Herri Institutua | |
| Arreiturre | 74 02 67 |
| Ezenarro (Meka) | 74 44 80 |
| Ikastola | 74 44 41 |
| L.H.I. | 74 44 80 |
| Pilar Ikastetxea | 74 13 31 |

| KOMUNIKABIDEAK | |
|---|---|
| BARREN | 74 41 12 |
| El Diario Vasco | 74 40 73 |
| El Correo Español | 74 10 82 |
| Egin | 10 84 21 |
| Zazpiki irratia | 74 34 74 |

## ostirala

10:00 GASTRONOMIA AZOKA
Plaza Handian

22:15 ZINEA
"En el amor y en la guerra"

## 2 larun ata

10:00 GASTRONOMIA AZOKA
Plaza Handian

11:30 ZAZPIKIREN BILERA
Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
"En el amor y en Ia guerra"

## 29 igandea

10:00 GASTRONOMIA AZOKA
Plaza Handian

12:30 BANDAREN KONTZERTUA
Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA
"En el amor y en la guerra"

## 30 aste e ena

9:30 UDALEKU IREKIAK
LHko I. eta 2. mailak
Plaza Handian

10:00 UDALEKU IREKIAK
Eskolaurrekoak
**Plaza** Handian

10:30 UDALEKUAK LESAKAN
LHko 5. mailakoak
Plaza Handian
Antoltzailea: Atxutxiamaika B. T.

22:15 ZINEA
"En el amor y en la guerra"

## 1 asteartea

15:00 HERRIKO DENDARIEN BILERA
Kultur Etxean

## 3 osteguna

18:00 MENDIKO AUTOBABES IKASTAROA
Kultur Etxean
Antolatzailea: Kirol Patronatua

## 4 ostirala

18:00 MENDIKO AUTOBABES IKASTAROA
Kultur Etxean
Antolatzailea: Kirol Patronatua

●●●●. R - RR • ER ZEURREIRRE • • •

# 11 NE A



Zuzendaria: Ricahrd Attenhorough
Antzezleak: Chrus O' Donnell, Sandra Bullock.

### En el amor y en la guerra

Lehen Mundu Gerratearen bueltan, gazte batek ejerzitoan izena ematea erabakitzen du gerratera joateko asmotan. Italiako frontean, bera dagoen trintxeran bonba bat lehertu eta hankarik gabe geratuko da. Ospitalean dagoela, benetako maitasuna ezagutuko du. Erizain amerikar batekin maitemintzen da eta euren arteko grina ez da sekula itzaliko.

RI • MI ●●●●● RR • ZRZIZERR IZ ER ●●●

## SAN PEOROKO JAIIAK

Ostirala, 27
16:00 Kanpai jotze eta txapligoak jaien hasiera iragarriz
22:00 Mus eta tute txapelketa. Izena emateko San Pedro jatetxean
22:30 Balizola anaiekin trikiti jarduna
Larunbata, 28
17:00 Haurren jolasak opariekin. Segidan poniak eta zezen txikiak.
21:00 Bertso afaria Sarasua, Peflagarikano eta Mendiluzerekin. Gai-jartzaile: Ziarda
24:00 Gaupasa Musutruk taldearekin.
2:30 Atsedenaldian, untxi harrapaketa
Gau osoan bolo tiraldiak eta txokolate jana
Igandea, 29
11:00 Meza nagusia eta prozesioa
11:30 Alkateari ongi-etorria Haritz Dantzari Taldekoekin
Ondoren, pilota partidua
17:00 Idi demak, Lopategi, Artaialde eta Urkirekin.
Egun osoan 011oki eta Ziolar trikitilariak
Amaieran, janariz eta edariz betetako orgatilaren zozketa

## B 11

### FARIVIAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 28 | Bidasolo* | Bidasolo |
| 29 | Etxeberria* | Etxeberria |
| 30 | Yudego | Zabaleta |
| 1 | Eboeberria | Ebceberria |
| 2 | Bidasolo | Escala |
| 3 | Bidasolo | Bidasolo |
| 4 | Bidasolo | Zabaleta |

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

### OKINCIEGIA

29 igandea Doña IVIercedes

## • Asteburuan, Gastronomia azoka

Asteburu osoan zehar Plaza Handian Estatuko iparraldeko leku ezberdinetatik etorritako ekoizleek euren produktu tipikoak erakutsiko dituzte. Goizeko 10etatik aurrera, egun osoan zehar jaki ezberdinak dastatzeko eta erosteko aukera izango da: Asturias aldean egindako gazta, zezina, sagardoa, enpanadak etab., Nafarroako zainzuri eta piperrak; Cantabriako eztia, gaztaia, pattarra etab. Euskal Herriko produktoreek ere izango dute lekurik.



## • Musika Bandaren kontzertua

Igandean, hilak 29, Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian eguerdiko 12:30etan hasita. Jose Antonio Osororen gidaritzapean bost pieza joko dituzte: "Agilero" pasodoblea, "Los esclavos felices" obertura, "Cheers" fantasia, "Viva Navarra" jota eta "Samba Sensation".

## • Zazpildren bilera

Zazpiki irratiak bilera egingo du bihar, hilak 28, Aita Agirre plazan duen egoitzan. Bilera goizeko 11:30etan hasiko da eta jorratuko diren gaiak ernisio amaiera eta datozen hilabeteotarako programazioa izango dira.

## • San Bartolome jaiak antolatzeko bilera

Udal Kultur Sailak San Bartolome jaiak antolatzeko bigarren bilerarako deialdia luzatu du herritar guztien artean biharko, hilak 28. Bilera Kultur Etxean izango da goizeko 1 letatik aurrera. Herritarrak, gazteak batez ere, animatu nahi dituzte aurreko bilerara 10 lagun baino ez baitziren agertu.

## • Udaleku ireldak Atxutxiamaikarekin

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale Taldeak antolatutako Udaleku Irekiak astelehenean, hilak 30 hasiko dira. Goizeko 9:30etan Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak elkartuko dira Plaza Handian. 10etan eskotaurreko haurren txanda izango da eta azkenik, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoak goizeko 10:30etan elkartuko dira Lesakako udalekuetara j oateko.

## • Araotz-era mendi trabesia

Morkaiko Mendizale Elkarteak Araotz ingurura mendi trabesia antolatu du uztailaren 6rako, igandea. Izena emateko Morkaikoren egoitzara zuzendu ostiral iluntze edo larunbat goizean edo 74 02 97 zenbakira deitu.


## HONEKIN GATOZHI

***ITALIA***
HOTELAK - 3 eta 4*
8 egun ***93.900 pta.***
***PARIS, RHIN eta HERBEHEREAK***
HOTELAK - 2, 3 eta 4*
8 egun ***85.900 pta.***
***1NGALATERRA eta ESKOZIA***
HOTELAK - 3 eta 4*
8 egun 11 ***5.900 pta.***
***BUDAPEST eta PRAGA***
HOTELAK - 3 eta 4*
8 egun ***89.900 pta.***
***PRAGA, VIENA eta BUDAPEST***
HOTELAK - 3 eta 4*
8 egun ***93.900 pta.***
***OSLO, F1ORDOAK eta GLAZIARRAK***
HOTELAK - 3 eta 4*
8 egun 1 ***38.500 pta.***
***ESKANDINABIA***
**HOTELAK 3 eta 4***
10 egun ***159.900 pta.***
***ISTANBUL eta KAPADOZIA***
**HOTELAK** 3 eta 4*
8 egun ***86.900 pta.***
***MOSKU ETA SAN PETERSBURGO***
**HOTELAK** 4*
7/8 egun ***119.800 pta.***
***EL CAIRO eta NILOAN ZEHAR KRUZEROA***
MAILAKO eta ERDI-LUXUZKO HOTELAK
8 egun ***139.400 pta.***
***GURE DETAILEAK:***
-131DAIA ASEGURUA
-EZKONGAIENTZAKO OPARIA
-3, ADINEKOENTZAKO BEHERAPENAK
-HIRUKO GELETAN BEHERAPENAK
-UMEENTZAKO BEREZIAK
-SALNEURRI GARANTIZATUAK
-IRTEERA GARANTIZATUAK
***BILBAO -EXPRESSEN ESKEINTZA BAT DA***

***Dudarik gabe, hemendik aurrera, zatoz gure bulegora:***

101k

VIAJtS B PMAK
***311.3190 EXPVESS***
Foruen Plaza, 3 Elgoibar
Tel: 74 39 12

# Larrañaga autoeskola



**Aprobetxatu**

**udaldia**

**gida-baimena**

ateratzeko

**% I Oeko**

**beherapena Gazte Txartelarekin**

Santa Ana, 11 Tel: 74 10 11 ELGOIBAR

11)11

N 11~ ...19121


41111111= 1~11111111111e

# OyelYlallc"

BEG1RALE TAIDEA

Elgotharko Izarra

**Ohar honen bidez, ATXUTXIAMAIKAren udalekuetan izena eman duten neska-mutilen gurasoei, ——— ko lehen eguneko datak, tokiak eta orduak jakinarazi nahi dizkizuegu:**

**UDALEKumK ELGOIBmwo-b**

- **LHKO 1-2 MAILA1** ekainaren 30ean, astelehena, 9:30etan Plaza Handian
- **Eskolaurrea:** ekainaren 30ean, astelehena, 10:00etan Plaza Handian
- **LHko 3-4 mailak,** uztailaren 7an, astelehena, 9:30etan Plaza Handian
- **AUSIXA (LHko 3-4 mdak).** uztailaren lan, astelehena, 10:30etan Plaza Handian

**UDALEKUAK IFQiNviw**

- **LHko 5. maill** ekainaren 30ean, astelehena, 10:30etan Plaza Handian.

Besterik gabe, edozffin zalantza argitzeko deitu 74 16 26 teiefonora (M* Jesus)

Atxutxiamaika T.

# KENSINGTON

- 1 , 2 Edo 3 oRdu
- MAdA quzriAk
- BIdEOA ORdENAgAILUA
- M US1 IKA - INTERNETA

- I NTENTSI bOAk
- COIZEZ ETA ARRATSAMEZ
- UZTAIIAREN 1 ET1 l< 3 OERA
- METOdOlogiA kOA

# 97-98 IKASTURTEA

- NgE[ESA
- FRANTSESA
- A[EMANA
- ITZIMDENAk



- Internet
- Multimedia
- Ikus-entzunezkoak

*.Ca filbridge Unibertsitateko azterketetako kide ES-438 ET - PET - First Certifieate Advanced - Proficieney*

## MATRIKULA ZABALIK

TOai

- 4 URTETik CORAkO UMEENTZAT
- METOdOIOgiA LUdikOA
- CAMbRicICE UNI1DERTSiTATEAN TITULATUTAkO iRAkASIEqOA

ITAME 11OMNENEOAk

- 25 URTEkO ESpER1ENTZiA ENpRESETAN (FORCEM ETA HOBETUZ subENTzioAl()

GIPUZKOAKO HIZKUNTZ IRAKASLE ELKARTEKO BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR
TEL/FAXA: 74 02 36
TEL: 74 35 12
E-MAIL: kensington@redestb.es

ERREKALDE, 5
20577 ANTZUOLA
TEL: (943) 78 70 30